

**Emitzak erakusten du Covid-19ak eragina izan duela****EROSKI-K 48 MILIOI EUROKO ETEKINA IZAN DU LEHEN SEIHILEKOAN**

- **Taldearen salmentak %7,2 igo dira, eta 2.412 milioi eurotara iritsi dira**
- **Taldeak 1.562 lanpostu sorrarazi ditu urteko lehen zatian**
- **Dendetako segurtasuna eta bezeroari zerbitzu egokia bermatzeko konpromisoak nabarmen igoarazi du babesa bermatzeko elementuei, taldeen errefortzuari eta garbitasunari dagozkien ataletan egindako gastua**

**Elorrio, 2020ko urriaren 2a.-EROSKI** Taldeak lehen seihilekoko kontuak itxi ditu 2020ko uztailaren 31n, eta 48 milioi euroko emaitza positiboa izan du.

Denera, EROSKI taldeak 2.412 milioi euroko negozio zifra izan du. Horrek esan nahi du %7,2 handitu dela aurreko ekitaldiko lehen seihilekoarekin alderatuta. Nabarmenezkoa da bereziki elikagaien jarduera handitu dela; izan ere, Covid-19a dela eta, hurbileko dendak eta haien kapilaritatea erakargarriago bihurtu dira, eta salmentak %12 igo dituzte. Elikagaien jarduerak orekatu egin du beste negozio eremu batzuetan jarduera apaldu izana, hala nola bidaia agentziak eta gasolindegia; pandemia dela eta, mugikortasun murrizketak erasan egin baitie.

*"Kontu hauek erakusten dute gizartearen ezohiko egoerak salmentak hobetu dituela, baina aldi berean, gastuak handitu egin dira bezeroari zerbitzurik onena emateko premiagatik eta ingurune seguru bat bermatzeagatik",* azaldu du Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

Gastu igoerak batez ere dendetako babes ekipoetan, segurtasunean eta garbitasunean izan dira, orobat lantaldeen errefortzuan ere, zerbitzurik onena eskaini ahal izateko. Alde horretatik, EROSKI Taldeak 1.562 langile gehiagorekin amaitu du seihilekoa.

Urteko lehen zatian, EROSKI zorra finantzarioaren 40 milioi euro amortizatu ditu; hortaz, zorraren itzulera berriz hitzartu zenekotik gora ari da amortizatzen.

EROSKI Taldea lehen seihilekoan 37 denda ireki ditu. Zehazki, 4 supermerkatu propio, Cash and Carry bat eta frankizia erako 32 saltoki. Epe horretan egin duen inbertsioa 31,2 milioi eurokoa izan da.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Taldeak sei milioi bezero-bazkide ditu, EROSKI Cluben, CAPRABOren eta FORUM SPORTen txartelaren jabeak direnak. Urteko lehen seihilekoan, EROSKI 138 milioi euroko transferentziak egin dizkie bezero-bazkideei eskaintzetan eta sustapenetan, zeinak gero eta pertsonalizatuagoak baitira.

Bestalde, EROSKI S. COOP. kooperatiba nagusiak 5,6 milioi euroko etekina izan du ekitaldiko lehen seihilekoan. Salmenten zenbatekoa 988 milioi eurotara iritsi da, eta %15 igo da aurreko ekitaldiko lehen seihilekoaren aldean.

### **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta elikadura arloan erreferentziazko operadorea iparraldean; zehazki, Galizian, Asturiasen, Kantabrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Errioxan, Nafarroan, Aragoian, Katalunian eta Balearretan. 1.645 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak, kirol ekipamendurako dendak eta on line supermerkatua ere bai. Sei milioi Bazkide Bezero baino gehiago ditu, eta 32.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)